



Neskatoa eta pianoa, Gerardo de León, Franchute

“Ume-jolasak”

Kontzertu didaktikoa pianoarentzat lau eskuez jotzekoa eta narrazioa

Musika: **Georges Bizet**

Piano-joleak: Francesca Croccolino eta Silvia Sucunza

Gida didaktikoa, testua eta gaztelaniazko narrazioa: Belén Otxotorena eta Inma Gurrea

Egokitzapena eta narrazioa euskaraz: Izaskun Mujika eta Patrizia Eneritz

“Herri hark ez zuen antzirik beste inongo herrirekin. Bertan bizi ziren guztiak umeak ziren. Nagusiak hamalau urtekoak ziren, gazteenak zortzi urte eskasekoak ziren.

Kariketan ziren alaitasuna, harrabotsa eta algara zuhurrena ere zoratzeko modukoak ziren. Leku guztietatik sortzen ziren gaztelxo-taldeak txorro-morro, teila eta pilota jostaketan, txirrindulan, zurezko zaldien gainean laukoan. Batzuk itsumandokan ari ziren, han, urrunago, elkarren harrapaketan ari ziren beste batzuk algaraka; beste haiek, pailazo jantzirik, suzko trapuak irensten zituzten.

Baziren errezitatzen ari zirenak, kantuan, jauzi arriskugarriak egiten, eskuak lurrean eta oinak airean zebiltzanak, uztaiaz jostatzen, paperezko kapela buruan eta kartoizko ezpata aldean jeneral itxuran ibiltzen zirenak, oihuka, txaloka, txistuka, zalapartaka, arrautza errundako oiloaren karkara egiten... Hitz batez esanda, egiazko nahas-mahasa, betiko gorturik ez geratzekotan belarrietan kotoizko tapakia jartzeko moduko harrabots infernukoa, alegia.

Plaza guztietan ikusten ziren lonazko antzokitxoak, umez beteak goizetik gauera, eta horma guztietan irakurtzen ahal ziren ikatzez idatzitako leloak, honako hauen modukoak; Gora jostailuak (gora jostailuak beharrean), ez dugu nahi gehiago heskolarik (eskola beharrean), Prin Metika kanpora (Aritmetika beharrean) eta antzeko aldrebeskeriak”.

"Ume-jolasak" Georges Bizet musikagile frantsesaren lanik ezagunenetakoa da.

Dirudienez, 35 urte zituela, bat-batean, haurtzaroaren oroimina sortu zitzaion Bizeti, orduko jolasak gogoratuta. Oroitzapen haien aitzakian konposatu zituen, bada, lau eskuez jotako pianoarentzako pieza txikien bilduma, musika benetan maite duen ikaslearen heziketan ezinbestekoa den pieza sorta zoragarri hau.

Bizetek ongi gogoan hartu zuen frantsesez, beste hizkuntza anitzetan bezala, *jouer* jostatzea dela, baina baita instrumentua jotzea ere. Gogokoa zuen, nonbait, musika jostaketa dela sinistea, eta jostaketa baten moduan egiten dela: arauak, egiturak...

Itxura arin eta xaloa duen konposizio hau lau eskuz jotako pianoaren lanik gorenetakotzat dute iritzi anitzek, eta estreinatu eta denbora gutxira, Bizetek ez zuen dudarik izan honen bost pieza orkestratzeko: Tronpeta eta danborra, Panpina, Ziba, Amak eta Aitak eta Dantzaldia.

George Bizet



Georges Bizet Parisen sortu zen 1838an eta Bougivalen hil zen 1875ean, 38 urte besterik ez zituela. Ume prodijioa (lau urte zituela partiturak irakurtzen zituen batere arazorik gabe) eta musikagile zorrotza izanik, haren produkzioa txikia da eta amaitu gabeko konposizio anitz utzi zituen. Zenbait lan egileak berak erretiratu zituen estreinatu ondoren, eta bera hil arte ezin izan ziren berreskuratu. Horietakoa da, esaterako, *Sinfonia Do Maiorren* (1855).

Musikari familia batean jaioa, Parisko kontserbatorioan sartu zen bederatzirekin ez zituela. 1857an "Erromako Konposizioaren Sari Nagusia" lortzeak eman zion aukera Italian bi urte gehiagoz aurrera jarraitzeko bere prestakuntzarekin. *Don Procopio* opera garai hartakoa du. Frantziara itzulita, *Perla-arrantzaleak* (1863) eta *Perth-ko neska ederra* (1867) operak konposatu zituen, biak ere hotz hartu zituelarik publikoak.

Ez zuten zorte hobirik izan musikagileari ospe gehien ekarri zioten bi lanek: Alphonse Daudeten *L'arlesienne* drama eta frantses antzerki lirikoaren maisu-lanik gorentzat hartzen den *Carmen* (1875), zeinaren estreinaldi gorabeheratsuak, diotenez, musikagilearen heriotza hurbilarazi baitzuen.

Pianoa



"Pianoak teklatua du kanpoaldean, eta barnean, perkusioaz jotzen diren hariak ditu; erresonantzia taula bat du, eta hor tenkatzen dira, zubi batez, hari horiek. Hauen euskarriak dira, alde batean, burdinazkoa izan ohi den marko bat eta, bestean, *klabijeroa* (gaztelaniazko *clavija*: euskaraz *larakoa* da). Hariak markoan eragiten duten indarra hogeitona tonarainokoa (!!!) ere izan daiteke"

Francesca Croccolino eta Silvia Sucunza dira gure pianista gonbidatuak. Haiek gure artean izatea luxua da, izan ere, biek kurrikulum bikaina baitute, eta aspaldi ari baitira elkarrekin pianoa jotzen.

Biek ere bina esku izanik, lau eskuez joko dutela esan digute. Piano gaixoa, a ze kilimak! Ez dakigu halako presioari eusteko gauza izanen ote den... (hariaren presioa dela eta artisten eskuak direla...)

Pianoa oso kilimatsua izaki eta, haiek ikusi orduko gurpilen gainean lasterka ihes egiten ez badu, Silvia eta Francesca Luisa eta Marisarekin izanen ditugu Barañaingo Auditorioan. Ez galdu!



EZ al zaizue iruditzen pianoa zebra bat bezalakoa dela, marra zuriak luzeak eta marra beltzak motzak dituen?

EZ al zaizue iruditzen pianoa txantxarra duen marrazo baten hortz-haginak bezalakoa dela?

EZ al zaizue iruditzen lapur bat, instrumentu mozorrotuta?

EZ al zaizue iruditzen beharbada pianoa zalantzatia dela eta ez dakiela zuria ala beltza izan nahi duen?

LUISA Y MARISA

LESQUI
EROM
CHO

Luisak eta Marisak udaberriko egun batez ezagutu zuten elkar, plaza

batean. Luisa uztai batez ari zen jostatzen, eta Marisa soka batez.

Nekatu zirenean, jostailuak trukatu egin zituzten. Handik gutxira, jostaketan nor bere kabuz aritzea baino, elkarrekin dibertigarriagoa zela ohartu ziren. Geroztik etengabe ari dira jostaketan eta elkarri ipuinak kontatzen. Era honetan, jostaketa eta ipuin pila bat ikasi dituzte.

Batzuetan, jostatuz kontatzen dituzte ipuinak, beste batzuetan, berriz, ipuinak dituzte jolas, eta maiz, jolasak asmatu egiten dituzte, eta ipuinak agertu egiten dira sorginkeria bailitzan...

Baina gaur goizean zerbait oso arraroa gertatu da. Sabaira igo dira eta... ez duzue sinetsiko! Antzinako jostailuez betetako piano bat aurkitu dute, haietako zenbait erabat ezezagunak Luisa eta Marisarentzat.

Ba al duzue haiekin jolasean aritzeko gogoak?

Zabua atera eta sabaetik zintzilik paratuko al dugu?

Luisak eta Marisak sabaiko habeetatik zintzilik paratu dute zabua.

Maiz ibiltzen dira zabuan parkean, baina behin ere ez dute ikusi honen modukorik, hain handia, zurezkoa, halako soka mardul eta maiztuaz...


Biak batera ere ibiltzen ahal baitira....

- Uuu, hauek kilimak sabel aldean!! – dio Luisak.
- Uuu, hau zirrara urdailean!! – dio Marisak.

Bilin-bolonka ibili eta, kanta bat etorri zaie gogora.

1. Nahi baduzue, ikas dezakezue eta haiekin batera kantatu kontzertuaren egunean. Doinua Sol Maiorren konposatua da, baina Silvia gure pianistak Re Maior tonura eraman du, zuentzat erosoagoa izan dadin kantatzeko.

Melodia hau aukera oso interesgarria izan daiteke musikaren kontzeptu kontrajarriak lantzeko, besteak beste arin/motel, forte/piano, agudoa/grabea...



- Ezagutzen al dituzu Euskal Herriko zabu jolasak?

Dilin-dalan, bihar jaia,

eskolarik ez.

Joango gara Tolosara

aitona-amonak I-KUS-TE-RA.

ZABUAN - *Abestia*

Zabu, zibu, ziburu; zibu, zabu, zaburu;

konta itzazu, zibu-zabu,

konta itzazu hamahiru...

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi,

bederatzi, hamar, hamaika, hamabi, hamahiru.

2. Figura geometrikoak lantzeko unea ere izan daiteke. Zabua egiteko behar diren pieza geometrikoak diseinatzen ahal dituzue eta umeak marraztu, zabuaren *gainean* edo *azpian*, *ondoan*, *aitzinean*, *gibelean*...

3. Zabu batek egiten duen bidea ezagutzeko, puntu-marra bat egin dezakezue eta osatu. Lerro imajinario hori lerro melodikoa bihur dezakezue eta ahotsa jarri.

Zein soinu egiten du zabuak goiti doalarik?

Zein soinu egiten du zabuak beheiti doalarik?

Zein soinu izanen luke bestelako bide eta lerro melodikoetan?

4. 1 ERANSKINEAN egile eta garai oso desberdinetako koadroak aurkituko dituzue: Jean H. **Fragonard** (1732-1802) eta Gerardo de León, **Franchute** (1957); biek ere zabua dute protagonista.

Interesgarria litzateke, ikasleen heldutasunaren arabera, bi artista hauen lanak alderatu ahal izatea, kolorearen aldetik, klima, paisaia, bertan ageri diren pertsonaien aldetik, jantzien aldetik...

Zergatik uste duzue bi artistek ere neskak margotu dituztela zabuan? Mutikoek ez al dute, bada, gustukoa, zabuan ibiltzea?

Inkesta bat egin zenezakete, ziur klasean ez duzuela aurkituko jolas zirrargarri honekin gozaten ez den inor.

Zurezko zaldian ibiliko gara?



*Zaldi gorriak, zaldi zuriak,
trakatan, trakatan;
zaldi gorriak lurretik,
zaldi zuriak airetik.*

*Zaldi gorriak, zaldi zuriak,
trakatan, trakatan;
zaldi gorriak orbelak,
zaldi zuriak hodeiak.*

*Zaldi gorriak, zaldi zuriak,
trakatan trakatan;
zaldi gorriak laukoan,
zaldi zuriak malkotan.*

Juan Kruz Igerabide

*Ai, zaldiko,
beti biraka.
Ai, maldiko,
beti aurrera.*

Eta leku berean beti betiko.

*Halere,
aurpegitxoan barrea alegera
ipurditxo bakoitzak damaizu-eta
bere beroa
bere eroa.*

Jon Suarez

1. Juan Kruz Igerabideren eta Jon Suarezren poesiekin lan egitea proposatzen dizuegu: irakurri, ulertu, margotu, egin ezazue kollage bat, antzeztu...

2. "Bazen behin zurezko zaldiko bat, karruseletik alde egin eta..."

Hau izan daiteke ipuin baten hasiera, eta zuek guztion artean asma dezakezue segidakoa.

- zaldi hori nolakoa den
- nora joan den
- zein beste pertsonai agertuko diren istorioan

3. Zer iruditzen zaizue saio bat ematen badugu zurezko zaldikoa lantzen psikomotrizitatearen gelan?

Hasteko, gimnasioko tresnaren bat hartu eta, zurezko zaldien moduan, kulunka ibil zaitezke.

Eta egiaz zaldi bihurtzen bagara? Nola ibiliko gara, trostan, laukoan, irrintzika....?

Ibilbide txiki bat ere presta genezake, oztopoak jarrita. Zaldiak trebeak badira, begiak estaltzen ahal dizkiegu, binaka jarri eta elkarri lotu hanketatik, etab.

4. Hona hemen Luisak eta Marisak egokitutako aspaldiko kanta sorta bat. Hauek ikasi eta jostatzeko gogorik ba al duzue?

Sanfermiñetan, Iruñera joanda,

Erosi nuen asto txiki bat.

Asto txikiarekin triko triko trin.

Atabalarekin traka traka tran.

Ai ze mutil majoa naizen ni!

Ai ze neska majoa naizen ni!

- Umeak zaldiaren bizkarraren moduko egitura karratu baten gainean eseriko dira, eta trostan ibiltzen saiatuko dira *Sanfermiñetan, Iruñera joanda* kantuaren erritmoan kantatzen duten bitartean.

Triko, triko, trinera iristen direnean (geldituko dira) eta *traka, traka, tran* zatian (zaldiak trukatu dituzte).

Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa

Trostan, trostan

Laukoan, laukoan

- Umeak egitura karratuaren gainean eseriko dira eta kantuan ariko dira *ttipi-ttapa, ttipi-ttapa*, edota erritmo desberdinak ezarriz: motela, arina, abiada bizian...

Arre, arre mandako,

Bihar Tolosarako,

Etzi Iruñerako,

Handik zer ekarriko?

Zapata ta gerriko.

Haiek zenentzako?

Gu guztiontzako!

- Zaldi erraldoi bat eginen dugu egitura karratu guztiak erabilia.

Umeetako bat haren gainean jarri eta *Arre Mandako*, kantari hasiko da. Kanta amaitzean, bigarren ume bat etorri eta aurrekoari gerritik helduta, kantuan hasiko da harekin batera. Ondoren hirugarrena, eta honela, bata bestearen atzetik, zaldia mukuru bete arte kantari ari diren umeez.

5. Amaitzeko, *Zaldiak eta zaldunak* jostaketan ari gaitzke.

Ikasleak bi taldetan banatuko ditugu; batzuk zaldiak eta besteak zaldunak izanen dira. Zaldun bakoitzak zaldi bat aurkitu behar du eta haren gainean jarri behar du. Aldi batez Bizeten *Zurezko zaldia* musikaren giroan ariko dira. Ondoren rolak aldatu eta jostaketa hasi eginen da atzera ere.

Panpin hau seaskañ kulunkatzen utziko al didazu?

Panpina hain antzinako jostailua izanik, Gizakiaren Historiaren osagaietakoa dela esan dezakegu.

Buztinaz egindakoak, hezurrez, zurez edota marfilez (eskimalek hala egiten zituzten), gauzaki mitiko edo erlijioso gisara edota entretenigarri hutsak, munduan diren kultura guztietan ageri dira panpinak eta egiptoarrentzat, esaterako, emankortasunaren sinbolo ziren.

Matxe paperarekin batera naturaltasuna iritsi zen panpinen aurpegiatarra, eta 1830ean, torloju eta zirindolei (arandela) esker, mugikortasuna hartu zuten euren gorputz gero eta sofistikatuagoek.

Trapuz eginak, kartoiz, plastikoz, gomaz, zeramikaz edota portzelanaz eginak direlarik ere, bildumazaleen gutzietako luxuzko objektuak izan dira panpinak, eta mendez mende umeen nahiz helduen irudimena piztu izan dute.

Panpinak ez dira neskatoen kontuak, hamarkadetan barna aurkakoa sinestarazi nahi izan badigute ere. Oker handia litzateke mutilei jostailu hori galaraztea, emozioen bideragarri antzinekoa baita, eta haurtzaro osoan bidelagun handia.

Georges Bizet mutila zen eta, hala ere, panpinak izugarri maite zituela ematen du. Gainera, doinu zoragarri bat sortu zuen haietako batentzat, eta hari jarri zioten ondoren hitza, hain zuzen ere, Luisak eta Marisak.

1. Kontzertuaren egunean Luisak eta Marisak doinu hau erabiliko dute pianoan aurkituko duten panpinari lo eragiteko. Oraingoz, gurekin gorde nahi ditugu musika eta hitza, baina partitura prestatu dizuegu kontzertuaren ONDOREN lantzeko aukera izan dezazuen.



 Pan-pin lo e - gin za - zu e - ne pan - pin mai - te - a _____ pan - pin lo e - gin za -



 zu dan - tza - tu a - me - tse - tan _____ Pe - ki - ne - ra i ri - tsi za - ra i - zur - de



 ba - ten gai - ne - an zo - az, zo - az he - gan ho - dei zu - ri - en ar - te _____ an.



Neskato urdina panpinarekin, Gerardo de León, Franchute

2. Zure panpina egin nahi al duzu?

Artilezko panpin polita egiteko urratsak aurkituko dituzu honako orri honetan:
<http://es.wikihow.com/hacer-una-mu%C3%B1eca-de-hilo>,

Nork bere panpina nahi duen moduan jantz dezake. Jantzi horiek osatzeko, gogoak ematen dizkizuen material guztiak erabiltzen ahal dituzue: paper koloretsuak, oihal zaharrak, egunkariak... Gauza ongi ateratzen bada, ez egin zalantzarik, erabil itzazue beste teknika batzuk ere: Panpinak trapuz, kartoiz, plastilinaz... egin ditzakezue.

3. Behin panpinak eginik, haiekin jolasteko unea iritsi da. Baina, zertan jostatuko gara?

- Baietz hitz egitea badutela eta Taj Mahal-a eskala dezaketela?
- Baietz lauetan puntuan Txinara joaten direla antzerkira?
- Baietz inor ez dela harritzen, argia itzali eta itzalak egiten dituztela?

4. Ariketa osatzeko:

- Jar iezaiozue Izena eta idatz ezazue paper batean.
- Asma eta ikas itzazue panpinei buruzko bertsoak.
- Osa itzazue aukeratutako poemari falta zaizkion hitzak.
- Ikas itzazue panpinen kantak: *tengo una muñeca vestida de azul...*

Asmatuko al duzu orain zertan jostatzen ari garen?

*Dantza egiteko janzten dut kapa
bestela ezin baitut dantzarik egin,
dantza egiteko eranzten dut kapa,
bestela ezin baitut dantzarik egin.*

*Txiki eta biribila naiz
dantza egiteko etorria mundura.
Lotzen naute dantzan hasteko
askatzen naute dantzatzeko.*



Bai, bada, ziba da (*txiba* esaten diote leku askotan, eta *dantzaria* beste batzuetan...).

Erderaz *trompo*, *peón*, *peonza*, *perinola*... hamaika izen hartzen ditu sorrera ezezaguna duen arren Kristo aurreko 4000. urterako erabiltzen zen jostailu honek.

Eufratesen ertzean buztinaz egindako ziba haietatik hasita, gure inguruan ohikoak ziren

zurezkoetatik igaro eta, egun plastikoz eta gai anitzez egindako ziba moderno eta sofistikatuenetaraino, ume eta heldu anitz dibertitu izan dira zibarekin jostaketan.

Ba al dakizue artista anitzek ziba hartu dutela euren lanetako gaitzat?

Manfred Bluth margolari alemaniarrek, esaterako, *Familia koadroa* izeneko margolana egin zuen, lehen planoan ziba musikala duena. Pedro Lobos txiletar margolari eta grabatzaileak ere ohikoa zuen ziba bere lanetan, eta halaber Fernando Morales Jordan marrazkilariak ere, 1998ko bere *El Trompo* marrazki irrigarrian. Bernardo Ortiz de Montellanok ere poema hau idatzi zuen:

*El trompo que gira músicas menores
movido, sin tregua, por tenue cordón,
el trompo de siete colores
¿no es acaso un corazón?*

Gainera, poeta anitzek izan dute jostailu hau sormen iturri: Victoria Contreras Falcón bere *Trompo dormido*, edo María Cristina Menares bere *Danza del trompo multicolor*.

Baina, dudarik gabe, Alejandro Galaz dugu ospetsuenetakoa, bere *Romance de la infancia* edo *Trompo de 7 colores* (2 ERANSKINA), pentagramara eraman dena eta antologia anitzetan ageri dena. Ziur zuenaren antz txiki bat baduela.

1. Hasteko, irakasleak ziba tradizionala ekar lezake, nola erabiltzen den ikas dezazuen.

2. Ondoren, tamaina anitzetako zibak marrazten ahal dituzue, eta ondoren margotu. Margotu ondoren, zergatik ez dituzue handitik txikira eta txikitik handira ordenatzen? Hirunaka, bosnaka edo zortzinaka taldeka jartzeko gauza izanen zarete? Zenbat ziba daude osotara?

Zabuaren ariketan erabili dituzuen figura geometrikoetan jartzen ahal dituzue. Baina, zenbat ziba sartzen dira figura bakoitzean?

3. Handitik txikira ordenatutako zazpi zibako lerro bat egiten baduzue, eta haietako bakoitzari musika-nota bana ematen badiezue, *xilo-ziba lortuko duzue*. Tamainaren arabera, zein soinu egokituko litzaioke ziba bakoitzari?

4. Gainera, beste gauza batzuk biraka jartzeko proba egiten ahal duzue... Ze marrazki lortzen du biraka dabilen gauza batek?

5. Amaitzeko, Segoviako **Nuevo Mester de Juglaría** taldea entzun dezakezue, euren **Para bailar** diskan ospetsua egin baitu “pupurri” edo “nahas-mahas” bat, ariketa honen hasieran erakutsi

dizuegun zibaren *pipitakiarekin* hasten dena. Aukera polita duzue diska honetan ageri diren herri kanta batzuk ikasteko, hagitx dibertigarriak baitira.

Itsumandoka ariko gara?

Marisak zapi bat aurkitu du, zapi luzea, gasa zurizkoa... antzinekoa ematen du zapi honek. Norena izanen ote zen? Zergatik utzi ote zuten pianoaren barnean sartua?

- Honek ere jostatzeko balio al du baaaaaaaaa?- Galdetu du Luisak harriturik.
- Jakina baaaa, jostatzeko balio du Itsumandoka!!!! – erantzun du Marisak bizi-bizi.

"Tienen los niños un juego que llaman de la gallina ciega, atando a alguno de ellos una venda a los ojos que no pueda ver, y los demás le andan alrededor tocando en el suelo con un zapato, y diciendo; Zapato acá; y suelen darle en las espaldas con él; pero al que él diere palmada con la mano o con el zapato, que trae en ella, entra en su lugar. El juego es muy antiguo..."

Luisak eta Marisak aukera izanen dute itsumandoka jostatzeko aspaldiko zapi batekin, oso antzinekoa den jostaketa hau bezain aspaldikoa den zapi batekin.

3 ERANSKINEAN ikusi ahal izanen duzue irudietan "itsumandoka" jostaketaren historia. Frantzian, esaterako, orain dela milaren bat urte aritzen dira jostaketa horretan.

Seguruenik umeez ez dakite jostaketa hau nola sortu zen: zaldun frantziar ausart bat, borrokaldiaren erdian itsu geratu eta, gizentasunez eta ausardia hutsez, ezpata utzi gabe, borrokan jarraitu zuen, zerraldo hilik erori zen arte. Geroztik, haren omenez, erregeak agindu zuen torneo guztietan zaldun bat begiak estalirik atera zedin, jendeak inoiz ahantz ez zezan aitonen seme hark erakutsitako ausardia. (Fullera, 2004)

Itsumandoka jostaketan aritzean esaten diren leloak anitz dira, lekuaren eta garaiaren arabera.

Honako orri honetan topatuko dituzue haietako zenbait:

<http://www.educar.org/infantiles/Juegos.htm>

Itsua: ZER ORDU DA?
Taldea: ORDU BATA
Itsua: ZER ORDU DA?
Taldea: ORDU BIAK
Itsua: ZER ORDU DA?
Taldea: HIRURAK
(...)
Itsua: ZER ORDU DA?
Taldea: HAMABIAK
Itsua: NIRE OPILA ERRE AL DA?
Taldea: ERDIA BAI ETA ERDIA EZ
Itsua: BESTE ERDIA NOIZKO?
Taldea: BIHAR GOIZEAN
TXOKOLATEA HARTZEKO!

I tsumandoka

Abestia

Hartu zapia eta begiak estali.
Hiru bira emanda segika ibili.

- Gallinita ciega, ¿qué se te ha perdido?
- Una aguja y un dedal.
- Da la media vuelta y lo encontrarás.

“Itsumandoka” jolasa alor desberdinetatik lantzea proposatzen dizuegu.

1. Leloak aukeratu, landu nahi duzuen garaiaren arabera.

2. Azter ezazue 3 ERANSKINEKO janzkera. Nola dauden jantzirik bertan ageri diren umeak eta jantzi horiek nola eragiten duten jostaketan.

3. Aztertu eranskin horretan ageri diren margolanetako garaiak eta koloreak, eta saia zaitzte haien erara margotzen.

4. Begiak zapi batez estaltzeko froga egiten baduzue, gainerako zentzumenak pizten direla egiaztatu ahal izanen duzue. Baina goazen urraska: batzukitsuak izan daitezke, eta besteak itsumutilak, besteen gidari-lanak egiten dituztenak, zeinek bere erara. Erne! Zer da halako usaina duen hori? Zer hots egiten du? Zein era du, zein zapore...? Ausartzen bazara, uki ezazu, hozka egiozu, entzun ezazu, usaindu, hazka egiozu...! Baina erne! Guztia **begiratu gabe!**

Ukimena: “Azti-zorroa”: Zorro batean jarritako gauzak zer diren asmatzea da jostaketa.

Dastamena: Janariak dastatu eta haien gustuak bereizi: mikatza, gazia, gozoa...

Entzumena: Hotsak ezagutu: umearen negarra, anbulantzia baten sirena-hotsa, xirula, telefonoa...

Adiskide baten gidari-lana egin ezazue perkusio txikiko instrumentuak erabiliz (kaxa txinatarrak, krotaloak, kaskabiloak, klabeak...) eta haietako bakoitzari norabide bana emanaz (eskuin, ezker, aitzin, gibel...) distantziak, altuerak... ere lan daitezke.

Usaimena: Usain ezagunak dituzten gaiak aukeratu eta eman usaintzera. Lehenbizi hurbilpen bat egin daiteke gai horiek ikusiz, eta ondoren, begiak estalirik ezagutu behar dituzte: kolonia-ura, xaboia, kafea, gazta, etab.

Iradozikuna:

Saio hauek oso erakargarriak dira umeentzat, eta gelan bertan egin daitezke, eguneroko gauzak erabilia, edo txango bat probestuta, naturan diren gaiak baliatuta. Adina eta heldutasunaren arabera, ariketa aldatu eta zailago jar daiteke.

Bitxikeria:

Ba al zenekiten Australian ere “itsumandoka” aritzen direla? Jostaketari “*Trampita Yaaltji*” esaten diote, esan nahi baitu “Non dago txintxirrina? (sonajeroa)”.

Australiar tribu aborijenetako umeak aritzen dira jostaketan. Hainbat ume lurrean esertzen dira biribila eginez. Bati harriz beteriko pote bat ematen diote, hark txintxirrin gisa eragiten dio, eta

erdian eta begiak estalirik dagoen umeak hots egilea zein den antzeman behar du. Behin antzemanik, beste bi umeak hartzen dute haien txanda.

Froga egin nahi al duzue, itsumandoka aritzeko australiarren erara?

Joko al ditugu zeuk tronpeta eta neuk danborra?



Luisa eta Marisa, beti jostaketan
Pianoaren barnean zerbaiten bila
Bata hemendik, bestea handik
Haratx! "la!!" hots eginda,
Aurkitu dute zer joa
Tronpeta eta danborra!
Hori poz jarioa! Hori bai altxorra!

Luisa eta Marisaren asmoa zera da, zuek ere beraiek adina goza dezazuen tronpeta eta danborra ezagutzuz eta haiekin jostatuz.

1. Hasteko, Instrumentu hauek erakusten ahal dizkizue irakasleak gelan, haien itxura eta ezaugarri nagusiei buruz solasean aritzeko eta, gainera, ateratzen duten hotsa entzun dezazuen.



2. Interesgarria litzateke tronpeta eta danborra entzuten diren grabazioren bateko zatiren bat entzutea, eta zuek antzematea soinu horiek beste instrumentu guztien artean.

3. Danborra era zehatzagoan lantzera animatzen zaituztegu. Haren onomatopeia PON – PON – PORRON – PON – PORRON – PON – PON ezagutzen ahal dugu.

Onomatopeia idatzi dezakegu, eta era desberdinetan eman ez jostatu: poliki, arin, azkar, apal, agudo, grabe...

Kartoizko kaxez egin ditzakegu danbor desberdinak eta erritmo errazak landu, galdera/erantzun moduan...

Berunezko soldadutxo bihur gaitzake, eta danborraren erritmoan mugitu. Kanona landu daiteke, errepikatzen diren esaldi txikiak...

4. Egiazko tronpeta bat lortzea zaila izan daiteke; gainera, hari hotsa ateratzea ere ez da xamurra. Hala ere, “plastikozko tronpetatxo” batez egin dezakegu proba.

Hori jotzen saia daitezke umeak, eta ezagunak zaizkien kantak laguntzen josta daitezke.

Gainera, kartulina batez edo paper gogor batez turuta bat egin daiteke, alde zurretik apaindua, eta plastikozko tronpetatxoaren ahoari atxikita jarri. Era honetan, ikasle bakoitzak “bere” tronpetatxoa izanen du.

5. Kartoizko kaxez eta kartulinazko tronpetatxoez lagun egiten ahal diogu irakasleak iradokitzen duen edozein lan orkestraturari. Inork ez luke galdu behar kartoizko kaxa, kartulinazko tronpeta eta orkestrarentzako kontzertu hau.

Luisa ta Marisa konpasaren erdian

Bata aurrean doa bestea atzean

Añizue, añizue!

Ostikoa eman dute

Doinutxo zoragarria

Jo danbor ta tronpetilaz

Xaboizko burbuilak eginen ditugu?

Guztiok izan gara haur, eta orduan liluratu egin gaituzte xaboizko burbuilek. Burbuilak magikoak dira, airean ibiltzen dira, nora doazen inork ezin asmatu duela, ez eta zenbat denbora iraunen duten lehertu eta desagertu aurretik.

Xaboizko burbuilak egiteko tailerra planteatzea proposatzen dizuegu.

Tailer hau dibertigarria izanen da umeentzat, haien jakin-mina piztuko du, eta inguruaren ezagutza areagotzen lagunduko die. Abantaila eta zer irabazi anitz dira. Putz eginez, arnasketaren kontrola hobetuko dute eta espazioa antzemateko era onduko dute.

Umeak ikasi egingen du gertaeren hurrenkera logikoa zer den eta, gainera, hori eragiteko gauza dela ohartuko da. Burbuilen bideari begira egonen da, haiek harrapatzen saiatuko da, aurrea hartzeko zentzua landuko du, eta bere mugimenduak koordinatzen ikasiko du.



Xaboi-burbuilak gutxienez orain dela 400 urte erabiltzen dira jostailutarako

1. Xaboi-isurki parte bat eta hori halako bi ur nahasirik, eta gainera glizerina koilarakada bat gehitzen badiogu, burbuila benetan sendoak lortuko dituzue.

Beste era batez ere, 60 cl haurrendako txanpu eta 200 ml ur eta hiru koilarakada arto-sirope nahasirik egin daitezke.

Freskagarriak hartzeko lastotxo horietako hiru hartu, erditik moztu itzazue eta lotu zeloaz.

Putz egiteko tramankulua alanbreaz ere egin daiteke, zurrun geratzen direnetakoa bada. Uztai bat egingen dugu, eta xaboi-ura hobeki atxiki dezan hariaz edo benda-oihalez bilduko dugu burdin haria. Putz egiteko gailuaren diametroak erabakiko du burbuilaren tamaina. Putz egin eta ikusiko duzue burbuilak norabide guztietara zabaltzen direla.

2. Baina kontua ez da hemen bukatzen, xaboi-burbuilak... **KOLOREATUAK** egin baititzakezue!!

KOLORETAKO XABOI-BURBUILAK

Materialak:

Alanbrea

Ura

Txanpua edo xaboi-isurkia.

Kolorante bejetala

Afitxe papera

Ontzi bat

Prozedura:

- Alanbrez prestatuko dugu uztai hertsia bat kirtentxo duena.
- Ontzi batean ur pixka bat, txanpu edo xaboi-isurki tanta batzuk eta tanta batzuk kolorante bejetala jarriko ditugu.
- Irabiatu, alanbrea sartu eta putz egin.

- koloretako burbuila anitz hegaturko dira.
- ume bakoitzari kolore bateko xaboia eman diezaiokegu.
- Gero, orri handitan edo afitxetan, putz egin, burbuila horiek marka biribila utziko dute, koloreak bata bestearen gainean ezarririk.
- Lehortu ondoren orri horiek erabiltzen ahal ditugu, zerbait idazteko, txartelak egiteko...

Dantzan ariko gara, zu neska eta ni mutila ginela?

Bizeten *Ume-jolasak* lanean bada pieza bat "aitak eta amak" izenekoa.

Guztiok jostatu izan gara txikitari amak eta aitak ginela irudikatuz baina, zorionez, amari eta aitari ematen zaizkien rolak nahasten hasi dira eta aitak biberioa ematen ahal dio umeari, ama lanera joaten da...

Hala ere, bide luzea dugu aurretik ibiltzeko.

1. Gelako txoko bat etxea izanen da, amez eta aitez betea. Batzuek janaria prestatuko dute, besteek mahaia jarri, beste batzuek hondatu den txorrota konpondu, haiek azokara joanen dira eroatera, haiek umeari pixoihala aldatu, horiek medikuarenera eraman...

Baina arin ibili behar dugu, hamabietarako guztiak prest egon behar baitu. **Dantzara goaz!**

Bizeten musika erabiliko dugu koreografia diseinatzeko. Egon erne, oso erraza da eta. Irakasleari entzun besterik ez duzue. Izan ere, doinu honi Luisak eta Marisak jarri dioten hitzak esanen baitizue, urratsez urrats, zer egin behar duzuen.

Batzuek mutilena eta besteek neskena egingen dute, nahiz eta gero rolak alda ditzakegun. Doinua agudo agertzen delarik neskak ariko dira kantuan eta dantzan, eta doinu grabea aditzean, mutilak.

Erne, hasi egingen gara eta!

Neska:

E - man - za - zu buel - ta ta har - tzen nau - zu es - ku - tik ta ni zu - tik gel - di - tzen naiz

Mutila:

Nik___ bi ra e - ma - ten, ta___ zu - tik e - gon zu___ i - go e -

7
za - zu ez - ke - re - ko es - ku - a e - ta a - gur - tu.

Mutila:

Buel___ ta e - man - za - zu___ ni e - se - ri - ta na - go e la - rik zuk be - gi bat mu - gi - tu

Neska:

Buel___ - ta e - man - go dut___ es - ku - tar - te - an har - tu - ko - zai - tut

bi - ok an - ka bat al - tza - tu - ko du___ - gu___

Pilota erraldoi bat agertuko dela baietz?

Azken piezak *Le bal* du izena. Ingeleraz *The ball* izenez itzuli dute, esan nahi baitu saloiko dantza eta, baita ere, pilota. Izan ere, pieza hau pilota bailitzan ibiltzen baita biraka pianoaren gainean.

Galop musika oharrak "dantzaldia" esanahia nabarmendu nahi bide du, baina Luisak eta Marisak esanahi frantsesa azpimarratu nahi izan dute, eta kontzertuaren egunean ikusi ahal izanen duzue, pilota handi samarra aurkituko dute pianoaren barnean, eta harekin jostatuko dira.

Pilota jostailu unibertsala da, aldaera eta tamaina anitz agertzen dituena.

Pilota egiteko, Historian barna, era guztietako materialak erabili izan dira, garaia eta lekuaren arabera.



Indo ibaiaren harroan, larruz eta ihi txirikordatuez egindako pilotak aurkitu izan dira. Egiptoko XII Leinuaren garaiko mural batek kainaberaz edo ihiez egindako pilota batez jostatzen diren neska gazteak agertzen ditu. Grezia zaharrean, berriz, puxika edo maskuria puztuak erabiltzen zituzten, beharbada zerriarenak, luze irauten baitzuten. 2008ko apirilean, ordea, plastikozko pilota handi batez jostatuko dira Luisa eta Marisa.

Aski ongi dakigu zuek izugarri maite duzuela pilotekin jolasean aritzea, futbolean ez-ezik, esku-pilotan edo pilotak eskaintzen dituen aukeretako edozeinetan ere. Luisak eta Marisak beste era batez jostatzea proposatzen dizuete.

Biraka ibiltzeko dohaina duen ESFERA gorputz geometrikoa lantzeko aukera emanen digu pilotak.

1. Ume bakoitzak egiaztatu ahal izanen du nola den hau, egunkariez egindako pilota bat egin eta hura biraka jarrita. Ongi biribila izan dadin, egunkari-papera ongi landu behar duzue eta margolari-zintaz lotu behar duzue.

2. Biribilean jarri, ume bakoitzak pilota bat jarriko du biraka beste lagun batenganantz, eta ondoren pilota leku desberdinetatik pasarazten ari zaitezketen (tunelak, bide estuak, zubi eskegiak...)

Zergatik ez jarri pilotaren ibilerari hotsa? Bakoitzak pentsatzen ahal du bere pilotak biraka ibiltzean egingen duen hotsa; gelditzen delarik, hotsa ere eten egiten da, eta beste kide baten piloka hasten da biraka eta kantuan.

3. Badira tamaina guztietako pilotak: baloia - *handia*, pilota - *ertaina*, tenis pilota - *txikia*, pinpon pilota - *oso txikia*, kanika - *txiki-txikia*. Hurrenez hurren jartzen ahal dituzue handitik txikira, entzun haietako bakoitzak zein hots egiten duen lurlean punpa egitean, eta zuen ahotsaz egiten ahal duzue hots hori; izena ere jartzen ahal diezue pilota bakoitzari, eta guztiak hartuta istorio bat asmatu eta antzezten ahal duzue.

Zenbat era ditugu biraka ibiltzeko? Nola egin genezake pilota bat gure gorputzaz? Eta guztion artean pilota egiten badugu?

4. Bilatu eta irudikatu biribilak diren gauzak eta esferen txokoa egingen dugu: laranja, eguzkiak, mundu-bolak... Umeez etxetik ekartzen ahal duzue forma hori duten zeinahi gauza.

5. Margotzeko gogorik ba al duzue? Eta pintzelen ordez kanikak erabiltzen baditugu?

Kartoizko kaxa batean orri zuri bat sartuko dugu. Ondoren, kanikak pinturan sartuko ditugu eta ibilaraziko ditugu. A zer artelana!!!

Kaixo guztiei:

Zer moduz zaudete?

Luisa eta Marisa gara, eta lerro hauek idazten dizkizuegu eskerrak eman nahi dizkizuegulako iaz zuekin guztiekin hain ongi pasatzeagatik.

"Ehunzangoaren ipuinak, batzuk zeharrez doaz, besteak aldrebes" iazko ikuskizunak zuek ezagutzeko aukera eman zigun eta esan beharrean gara guretzat plazer handia izan zela.

Aurten aukera berria dugu, eta zuen gogokoa izatea espero dugu.

Momentuz, ilusio handiz diseinatu dugu gida hau, *"Ume-jolasak"* hau prestatzean zuek guztiok izugarri ongi pasatzea nahi baikenuke.

Ixxxxooooooooo, sekretu bat aitortu behar dizuegu!

Behar bada, kontzertuaren egunean, dantzan aritu eta zabua, pilota, ziba, xaboi-burbuilak, panpinak, itsumandoka, danborra eta tronpeta... horiek denak jostatzeko erabiltzeaz gain, beste zerbaitetan ere ari gaitzake jostaketan, izan ere, gida honetan landu ditugun jostaketez gain, Bizetek musika konposatu baitzuen "pidola" izeneko jolaserako (frantsesez "saute-mouton", ardi-jauzia edo antzekoa, gure txorro-morro edo...) badmintonerako eta lau izkintan aritzeko.

Hala ere, ez al zaitzue iruditzen Bizetek jostaketa dibertigarri anitz ahaztu zituela?

Soka, uztai, kromoak, tortolosak (tabak), domino, ezkutaketa edo kuriketari, harrapaketa, bola-jokoa...

Iruditzen bazaizue, zerrenda hau zuen ohiko jostaketez osatu dezakezue, edo beste leku batzuetako jostaketez... haietako bakoitzaren sorrera bila dezakezue, haien funtzionamendua ikertu, argazkiak atera, lanak pasabidetako hormetan erakutsi...

Eta norbait animatzen bada... musika ere asma zenezakete jostaketa horietakoren bat girotzeko. Behar bada, zuetakoren batek **Bizetek berak** adinako dohaina izanen du."

Are gehiago, nahi baduzue zuen ideiak eta sormen-lanak bidaltzen ahal dizkizuzue, edo besterik gabe gutun honi erantzun, kontzertu honekin zenbat ikasi duzuen guri kontatzeko.

Muxu anitz guztientzat eta... laster arte!

Luisa eta Marisa

1 ERANSKINA



Zabua, Jean H. **Fragonard** (1732-1802)



Neskatoa zabuan, Gerardo de León, **Franchute** (1957-)

2 ERANSKINA

*Trompo de siete colores,
sobre el patio de la escuela
donde la tarde esparcía
sonrisas de madre selvas,
donde crecían alegres
cogollos de yerbabuena,
trompo de siete colores,
mi corazón te recuerda.
Bailabas mirando al cielo,
clavada la púa en tierra.
Fingías dormir inmóvil
y dabas y dabas vueltas;
y florecida en ti mismo
danzaba la Primavera,
porque tu cuerpo lucía
pintura de flores nuevas.
Pedazo de alma fragante
de los peumos de mi tierra,
que parecías un huaso
llevando manta chilena;
al son de tu propia música
—bordoneo de vihuela—
cuando te hallabas cucarro
sabías bailar la cueca.
Arco iris, choapino,
maestro de la pirueta,
elefante diminuto,
caballito de madera;
al huir de nuestras manos
que te ceñían la cuerda,
en la fiesta semejabas
un carrusel de banderas.
Trompo de siete colores,
mi corazón te recuerda,
y en su automóvil de sueños
a contemplarte regresa.
¡Y qué suavidades tiene
la ruta que el alma inventa
para volver a su infancia
que se quedó en una aldea!*

Alejandro Galaz

3 ERANSKINA

1. IRUDIA



XIII. mendeko eskuizkribua. Montpelliengo Alger Museoa

2. IRUDIA



"Itsumandoka" (1845) Eusebio Zarzaren marrazkia.
Madrilgo Liburutegi Nazionala.

3. IRUDIA



"Itsumandoka" jostaketa.
Ume-jolasak Xehetasuna.

4. IRUDIA



"Itsumandoka" edo "burruntzalia"
Goya (1788) Museo del Prado (Madrid)

5. IRUDIA



Bilduma pribatua. Ramos. (1998)

4 ERANSKINA

JOSTAKETAREN RADIOGRAFIA ESKOLAREN TESTUINGURUAN

Alfonso Lázaro Lázaro. PSIKOMOTRIZITATEA.

Revista de Estudios y Experiencias 51 zka, 1995. 3 lib.

HELDUEN ARTEKO JOSTAKETA

Neska-mutilen jostaketa aztertu, ulertu, hura behatzen jakin eta hortik gure hezitzaile lanerako baliagarriak diren ondorioak ateratzeaz gain, beharrezkoa da, helduak garen aldetik, beste heldu batzuekin esperimentatzea, jostaketa bizitzea, aztertzea eta dagozkion ondorioak atera behar ditugu, baliagarria izanen baitzaigu, hezitzaile lanerako ez-ezik, pertsona gisa ere bai.

Baina, zer da helduaren jostaketa? Lanak, edo lana aurkitu beharrak, itorik dabilen helduak, eguneroko beharrezanek harrapatutako horrek, familia nahiz gizarte alorretatik ezartzen dizkioten kontuek lotua bizi den heldu horrek nekez aurkitzen du jostaketarako tarte. Berarentzat, bere buruari jostatzeko aukera onestea, Wallonek dioen moduan, *<ez al da bere buruari aitortzea su-etena merezi duela, tarte horretan ohiko loturak, betebeharrak, beharrezanak eta diziplinak bertan behera geratzen direlarik?>* Bizi garen gizarte honetan, izan ere, beharrezkoa baita nork bere buruari su-eten hori onestea, tarte hori hartzea, nork bere buruari emana, helduak bertan ez delarik "eginbeharrak": Une horretan esan dezakegu jostaketan ari dela.

Eta ez gara ari aisialdiaren munduaz. Guretzat, aisialdia eta jostaketa sinonimo izatetik urrun daude. Egitura ekonomiko-sozialak sare itzela sortu du, eta bertan *<aisialdia>* eta *<lanaldia>* tarteetako jardueren arteko aldea gero eta txikiagoa da. Bistan denez, industria izugarri boteretsua sortu da aisialdia betetzen duten jardueren inguruan. Batez ere, kirol-jokoen instituzionalizazioaz ari gara, kirola masa-ikuskizuna bihurtu duen horretaz. Klubak elkarte anonimo bihurtuta, gizartearen komunikabideak kirol-ikuskizun horren zerbitzura egonik, jokalaria idolo bihurturik, aisialdi hori bizitzeko ilusioa pizten da. Masa-fenomeno horren azterketa sakonetan sartu gabe, gure ustez, orain azalduko dugun moduko jostaketak ez du zerikusi handirik era horretako jarduerekin.

Huizingaren ustez (1968) *<Jostaketak estutu eta askatu egiten du, harrapatu, liluratu eta sorgindu egiten du. Gizakiak gauzetan aurkitu eta adierazten ahal dituen bi dohainik nobleenak ditu berekin jostaketak: erritmoa eta harmonia, alegia.>* Hezitzaileak, beste hezitzaileekiko gorputz-jostaketan, hori guzti hori sentitu egiten du. Jostaketak bere burua hobeki ezagutzeko eta besteekin komunikazioan aritzeko aukera ematen dio. Baina batez ere plazerra ematen dio, irria sortzen da, gozamina, bizitzeko espazio eta tarte bat burutzea, hori gabe bizitza bera eramangaitza izanen bailizateke.

Baina goian aipaturiko su-eten hori era anitzez eta desberdinez hartzea dauka helduak, ez du nahitaez fisikoa izan behar. Esate baterako, literaturan, Rodriguez Oquendok (1991) dioenez, literatura eta jolasaren arteko harremana *<aspaldiko senar-emazteen artekoa bezalakoa da, etenezina>*.

Eta garai desberdinetako literaturaren sormen-lanak aletuz gero, adibide ezin ederragoak topatuko ditugu, non harreman horren argira ametsetako, idatzitako paradisuak aurkitzeko aztikeriak sorgintzen gaituen... esate baterako, Quevedo, Joyce, Cortázarren lanetan.... Baina Don Antonioren, hitzaren beste jostalari handi haren, hitzez amaitu nahi dugu,

-Baina artea?

-Jolas hutsa da,

bizitza bera baita alegia,

sua bera baita alegia.

Ikusiko duzue txingar piztua.

Euskaraz ari garenontzat, berriz, hitz egitea, jolas egitea, solas egitea, elkarren ondo-ondokoak dira, eta horren erakusgarri argia dugu gurean hitza eta hizkuntzaren kirolak, bertsolaritzak, bertsogintzak eta bertsozaletasunak halako egunerokotasuna izatea, hain erroturik egotea, horren arrakastatsuak izatea. Umeen hezkuntzan hizkuntza ikastea hain garrantzitsua izanik, mundu horrek baliabide zoragarriak eskaintzen dizkigu lanerako.

Bibliografía:

Juego y desarrollo infantil. Maite Garaigordobil. Editorial Seco Olea, 1990

Juegos tradicionales en la Escuela Infantil, Coor. Pilar López López. Amarú Ediciones, 1992

¿Por qué? Lila Prap. Ediciones SM, 2006

Preguntario, Jairo Aníbal Niño. Editorial Panamericana, 1989

Adivinancero, Regino Etxabe. Ediciones Hiperión, 2004

Juguetes infantiles, Luisa A. Payno. Simancas Ediciones, 1995

Prácticas de dramatización, Tomás Motos Francisco Tejedo. Editorial La avispa, 1999

Zaldiko-maldikoan. Aizkorri argitaletxea, 2003.

Egun osorako poemak eta beste. Juan Kruz Igerabide. Pamiela argitaletxea, 1993.

Pupuan trapua. Xabier Olaso. Pamiela argitaletxea, 2004.

Diskografía:

Juegos de niños, Agruparte. Colección La mota de polvo

Para bailar, Nuevo Mester de Juglaría. Dep. Legal. M-6717-1991

Cancionero infantil del papagayo, Recopilación Magdeleine Lerasle. Kokinos, 2003

Cancioncillas del jardín del Edén, Recopilación Nathalie Soussana. Kokinos, 2003

web:

www.solohijos.com

<http://es.wikihow.com/hacer-una-mu%C3%B1eca-de-hilo>

<http://www.educar.org/infantiles/Juegos.htm>

www.primeraesuela.com